

## INGURUMENAREN JASANGARRITASUN POLITIKA

**DONOSTIALDEA ESI**an **JAKIN BADA**KIGU, asistentziari, ikerketari eta irakaskuntzari dagokion jarduera garatzen dugunean, onartu behar dugula gure jokabideek eta lan-ohiturek inpaktu garrantzitsua dutela ingurunean.

Horren adierazle da, **BETI GOGOAN IZAN DUGULA INGURUNEAREKIKO BEGIRUNEA**, bai 2015eko ESIko estrategia zehazterakoan bai 2017ko gogoeta estrategikoan, non gure erakundeko profesionalek parte hartu duten.

Kontuan harturik ESIko estrategia, Ingurunearen Jasangarritasun Politika eta 2016ko Kanpo Ebaluaketaren emaitza, eta, onarturik **GURE LEHEN HELBURUA ingurumenaren babesa, aurkako inpaktua txikiagotzea dela**, bereziki hondakin sanitarioen kudeaketatik eta sorreratik eratorritakoak, **ONDORENGO JARDUNBIDEAK** zehaztu ditugu:

- Gure jardueraren ondorioz sortutako hondakinak murriztea eta behar bezala kudeatzea.
- Energiaren kontsumoa optimizatzea.
- Urriak diren ondasunen kontsumoa optimizatzea.
- Isurpen kutsatzaileak kontrolatzea eta murriztea
- Erakundeko langileen, hornitzaileen eta erabiltzaileen ingurunearekiko kontzientziazioa eta sentsibilizazioa bultzatzea.
- Jasangarritasun Politikako irizpide baloragarriak txertatzea erosketa eta kontratazio politikan, eta sustatzea energetikoki efizienteak diren produktuak erostea eta zerbitzuak kontratatzea.
- Ingurunea babesteko indarrean dagoen araudia betetzea eta, ahal den neurrian, etorkizunean onar daitezkeen legezko xedapenei aurrea hartzea.
- Erakundeak bere borondatez hitzartu dituen ingurune baldintzak betetzea.

Horregatik guztiagatik, **DONOSTIALDEA ESI**an **HITZEMATEN DUGU**:

**Jokabide lero hauek zabalduko ditugula** eta eguneroko lana garatuko dugula, babes marko baten barruan eta ingurunea errespetatuz, bai gure jarduera asistentzialean bai irakaskuntzako eta ikerketako eremuan, profesionalak eta interes-taldeak konprometizuz ingurunea babesteko helburuak zehaztuz eta lortuz.

Ingurunearen Jasangarritasun **Politika hau zabalduko dugula** langileen, interes-taldeen eta herritarren artean, ezarritako helburuak lortzeko asmoz.

